

Julio  
Caro  
Baroja


*Euskal gaietan ere maisu aparta*

(1914-1995)

BIDeGILEAK

Egilea:

**Jose Antonio Azpiazu**



# JULIO CARO BAROJA

(1914-1995)

## Familia berezi bateko kide berezietakoa

### HAURTZAROA, MADRILEN ETA BERAN

Julio Caro Baroja Madrilén jaio zen 1914. urtean, eta Berako Itzea jauregian hil, 1995ean. Bere aita Rafael Caro Raggio editorea, inprenta baten jabea zen, eta ama, artista plastiko eta idazlea, Carmen Baroja Nessi izan zuen. Bere ondoren bi anai-arreba etorri ziren, baina oso gazterik hil ziren. Hamairu urte t'erdi zituela jaio zen bere anaia Pio. Beraz, eta berak esaten duenez, familiako nagusien artean pasatu behar izan zuen haurtzaroa.

Osasun-arazoak izan zituen bizimoduan zehar. Ume-denbora oso era deserosoan gogoratzen zuen, batez ere liseri aparatua-



Carmen Baroja Nessi, Julio Caro Barojaren ama. Anselmo de Miguel-ek 1910ean egindako erretratua



Rafael Caro Raggio, Julioaren aitaren erretratua, J. Moya del Pino pintoreak 1911n margotua



Julio Caro Baroja txistua jotzen Berako Portu etxearen aurrean, 1921 inguruan

ren problemengatik. Bizitasunaren ezaugarria gorpuzkeran ez, baina begietan nabaritzen zitzaien. Bere patua, haurtzaroari kasu eginez gero, behatzaile batena izango zela zirudien. Jarrera horretaz ohartuta, osaba Pio Baroja idazleak, bazter batean begira-begira ikusten ohituta, honela esaten omen zuen: «ume honek azerikumea ematen du». Beharbada, txikitatik igartzen zitzaien behaketarako joera nabaria.

Julio jaio baino bi urte aurretik erosi zuen osaba Piok Berako Itzea etxetzarra, bere babesleku maitatuena bilakatuko zen zokoa. Baita sendiarena ere, garai ilunentan bereziki. Bere anaia Pio Carok dioenez,

gerra zibileko hiru urteak etxe honetan igarozituen Juliok, irakurketa sakon eta zabalekin bere burua aberastuz, inguruan gertatzen ari zen suntsiketaren eragina nolabait gainditzeko. Hiru urte hauek izan zituen literaturarik aberatsena buru-belarri irakurri eta liburu horietako jakinduria xurgatzeko.

Esan bezala, Barojatar sendia identifikatuko duen etxe bat markatu nahi izanez gero, ezbaierik gabe hau Itzea izango litzateke. Juliok gogoan zeuzkan, batez ere, han igarotako uda luze eta gozoak, bertako haurrekin jolasean, tarteko haserrealdi eta adiskidetzeekin. Garai hartan Berako umeen hizkuntza bakarra euskara zen, eta onartu beharrean gaude Julio ere euskaraz mintzatzen zela beraiekin, batez ere hizkuntzetarako zuen erraztasuna ezagutuz, baina baita ere haurrek bere ingurura moldatzeko duten trebetasuna kontuan hartuta. Hain zegoen Berako giroari eginda, ezen, Gaztelara bueltatzeko ordua iristen zenean, atsekabe jasanezina sortzen baitzitzaien.

## JULIO ETA BERE SENDIA

Ezin esan Barojatarrrena usadiozko familia zenik, eta Julio, onerako eta txarrerako,

ezohiko familia honen oinordeko fida-  
garriena bilakatu zen. Hiru belaunaldi  
kontuan hartuta, lehen mailan Carmenen  
aita Serafin nabarmendu zen. 1840an Do-  
nostian jaioa, ingeniaria eta gizon ikasia  
zen, oso euskaltzalea, bertsoegilea, musika  
konposatzailea, eta lan batzuk Donostiako  
egunkarietan argitaratzen zituenena. Tartean  
hizkuntzari buruzko lanak ere ondu zituen,  
euskarazko hiztegi bat, besteak beste. M.  
Unamunok idazten zion Salamancatik,  
bere lanen oniritzia edo kritika jakina-  
razteko. Garai hartan Madrilan zeuden  
musikari eta jakintsuekin harreman estua  
mantendu zuen. Zalantzarik gabe, bere  
izaerak Juliorengan eragina izan zuen.

Aitona Serafinek hiru seme-alaba izan zituen,  
Julioaren ama Carmen, Pio eta Ricardo osa-  
bak. Amarekin lotura oso estua izan zuen,  
bere bizitzan erabakiorra bilakatu zena. Osa-  
bak, ordea, literatura- eta marrazki-iturburu  
bilakatu ziren. Pio Carok dioenez, ez zuten  
merezi adinako saririk jaso, hain artista onak  
izanda. Egoera tamalgarriak jasan behar izan  
zituzten, euren kontzientziari jarraituz, ino-  
rekin ezkontzen ez zirelako.

Julio ez zen egoera hauen testigu hutsa  
izan, berak ere iturri mingots hartatik edan  
behar izan baitzuen. Lau hamarkada eta  
erdi *Instituto de Investigaciones Científicas*



Baroja familia Itzeako lorategian 1917an. Eskuinetik ezkerrera, Pio Baroja,  
Carmen Nessi, Carmen Baroja, Pio eta Julio Caro Baroja haurrak

delako erakundearentzat lan egin ondoren,  
ez zuen erretiroa merezi izan. Salbuespen  
bezala, 1995ean hil zenean, *Real Academia  
de la Historia*-k bere kideen hiletarako  
seinalatzen duen dirua bidali zuen. Ez zuen  
katedrarik eskatu, oposaketa sistemaren  
aurkakoa zelako, baina, hainbat merezi-  
mendu irabazi ondoren, horrelakorik es-  
kaini ere ez zioten egin.

Julio bere garaiko gorabehera askoren iker-  
tzaile sakona bilakatu zen. Bestalde, historian  
zehar bereziki sufritu duten taldeak izan zi-  
tuen aztergai: moriskoak, sahararrak, juduak  
eta abar. XX. mendean mundu arkaiko baten  
desagertzea gertatu zen, eta aldaketa eraba-  
kior horien begirale zorrotza eta lekuko apar-



Julio Caro Pio Baroja osabarekin Madrileko etxeko bulegoan, 1953an



Julio Caro lehen jaunartze egunean Beran 1921 inguruan

ta izan zen Julio Caro. Begirune maitakor eta arduratsuen itzuli zien talde galtzailei, edo Elizaren erasoak jasan zituztenei, sorginkeria aitzakiarekin adibidez.

Horien artean, bertatik bertara ezagutu zuelako beharbada, Euskal Herria izan zen ikerketa gehien merezi izan zuena. Euskaldunak, beren historia harrigarri eta ezezagunak, euskara eta bere giltzarri ezkutuak, bertako jendearen izaera eta antzinako ohiturei eta erroei erakutsitako lotura eta atxikimenduak, horiek deitzen zioten atentzioa. Euskaldunaek osatzen duten gizarte mota hau desagertzeaz zegoela ikusita, haien kulturaren azken txinpartak islatu nahi izateak mamitu zuen bere bizimodu eta ikerketen zergati nagusienetako bat.

Izan ere, Baroja familia bera galzorian da goen gizarte-eredu bezala har baikenezake.

Ez zuten, ez Ricardok ez Piok, bere artea eta jakituria edozein baldintzatan agertzea onartu, edota edozein ideiarene mende lan egin nahi izan. Beren nortasuna eta pentsaera interes kaskarren gaintetik kokatzea erabaki zuten. Tamalez, pentsaera bati derri gorrez lotu gabe, arerioak sortzeko modu aproposena berenganatu zuten. Bi osaba eta ilobei, horrelako arrazoiengatik, gogor sufritzea tokatu zitzairen. Pio Carok garbi adierazi du bere anaia eta osaben independentzia, zentzu kritikoa eta ausardia larrutik ordaindu behar izan dutela.

Bere familiaren barruan, esan bezala, lokaririk gabe pentsatzen ikasi zuen. Bortzirietako herri hartan, hain tradizionala izanik, haien portaera eta pentsaera susmagarriak ziren. Eta lehen jaunartzea hantxe, Beran, egin bazuen ere, Juliok herriko adiskideen aurrean atea zela bota omen zuen





Ricardo Baroja margolari eta idazlea. Julio Carok 1985ean egindako erretratu

mutikotan, inguruko biztanleen artean eskandalua sortaraziz. Beratarren esanetan, familia ezagututa ez zen harritzekoa horrelakorik gertatzea. Osaba Ricardo, bereziki, ez zen ahalegintzen bere antiklerikalismoa ezkutatzen.

## ITZEAREKIKO LOTURA ESTUA

Julio Caro Barojari, Euskal Herria eta euskal kulturarekiko izan zuen lotura Berako Itzea familiako etxearen bidez sortu zitzaion. Nafarroa iparraldeko herri honetan hasi zen euskal lurra eta gizartea bere-bereia egiten. «Hau da erosoan sentitzen naizen tokia», aitortzen zuen, eta haurtzaroan, oporroaldiak amaituta, Madrilerantz itzuli be-

harrak larritasuna sentiarazten zion. Horrek ez du esan nahi beratar denekin Baroja familiakoak ondo konpontzen zirenik.

Beste hau ere onartzen zuen: «haurtzaroan bizi izan zaren lekua euskal lurra izanda, berarekin lotura etenezinak sortzen dira, nahiz eta bertako bizilagun askorekin ados ez egon». Itzea bilakatu zen bere babesleku: «euria egiten zuenean, bertako kortan jolasten zuen auzoko mutikoekin, harik eta osaba Piok, bere idazlanetan ziharduelako,



Itzearen aurrealdea

isilarazten zituen arte». Etxetzar hartan biltzen ziren, berarekin denbora pasa, herriko ume xumeenak, eta familiak ez zion horretarako inolako trabarik jartzen. Nerabezaroan bertan jolas, haserretu, adiskidetu..., maite zuen giro hura.

Ikasketak Madrilen egin zituen arren, unerik goxoenak Beran igaro zituen, bere burua euskara eta euskaldun izaerarekin gero eta gehiago identifikatzen zuelarik. Horrela, bada, beratar bat bezala sentitzen zen, eta barruko lotura honek bultzatu zuen geroago ikertuko zituen gaiak maitatzera, bere etnografia-lanen abiapuntu bezala. Bidasoa eretzeko Bera eta inguruko herriak, Euskal Herria orokorrean, ohiturak, historia, hizkuntza, dena egiten zitzaion miresgarri, eta bere bizi-moduan zehar egin zituen lanek bereziki lur eta gizarte honekin dute zerikusia.

Caro Barojak esaten duenez, «Euskal Herriak gero eta gehiago harrapatu eta lotzen gintuen», eta bere etnologo-zaletasunari jarraituz, oso gazterik hasi zen hango herritarrei galderak egiten, euren ohitura eta sinismenen berri jasotzeko asmoz. Garai hartan Beran ezagutu zituen pertsonaia bereziek txunditu egin zuten, eta bere jakingura asezinak haiek lurrarekiko zeuzkaten lotura estuak eta sineskeriak jaso zituen. Horrez gain, eta batez ere gerrate



Itzeako bulegoan lanean, 1980 inguruan

denboran, Itzeako liburutegi aberatsa goitik behera arakatu zuen, geroago egindako lanek oinarri sendoa izan zezaten. Hori bai, bere bakardade latzean hein handi batean autodidakta bilakatu zen.

Bestalde, Caro Barojak dio, haurtzaroan Beran bizi izanez, euskal mundu hermetiko eta idilikoa zabaldu zitzaiola begi aurrean. Barruan zuen esperantza hau zen: berak umetan eta gaztaroan ikusitako inguru mitikoa, hain bizkor desagertzen ari zena, zahartzaroaren leungarri eta gozagarri bilakatuko zitzaiola. Hain hurbil eta bizi sentitzen baitzuen ezagututako eta ikertutako euskal sena eta izaera. Ez da ahaztu behar Julio, hogeit bat urteko mutil gaztea zela, gerra aurreko uda pare batean Telesforo Aranzadik eta Jose Migel Barandiaranek Euskal Herrian egiten zituz-



ten indusketa arkeologikoetan laguntzaile eta ikasle pribilegiatua izan zela. Osaba Piok bultzatu omen zuen hartara. Gerra ostean ere harreman estua izaten jarraitu zuten Ataungo eta Berako jakintsuek, Jose Migelek eta Juliok alegia.

## GERRATEA ETA BERAREN ONDORIOAK

Barojatarrena ez zen familia arrunta, noski. Gerratea iritsi baino lehenago, Pioren lanek eta izaerak oihartzun handia zeukaten, baina bere idazkera eta pentsaera librearen ondorioak nabarmenak izan ziren: arerio asko sortu zitzaion batean eta bestean, Elizaren aldetik, batik bat. *Aitzolek*, Jose Ariztimuño apaizak, oso gogor erasotu zuen bere idazlanetan, eta Ezkiogako Ama Birjinaren agerraldiak zirela eta, Mateo Mujika apezpikua bera ere agertu zen Pioren kritiken aurka. Gerra lehertzean, Itzea eta bertako biztanleak ez zeuden oso egoera erosoan, eta une larri haiek Juliorengan eragin samina izan zuten, familia sakabanatu eta miseria gorrian aurkitu zelako. Madrileko familia-ondasunak, inprenta eta etxea barne, txikituta gelditu ziren, eta bizimodua aurrera ateratzeko arazo latzak izan zituen Beran. Gerra den-




Julio Caro, Telesforo Aranzadi eta Jose Migel Barandiaran 1930eko hamarkadaren hasieran. Julio Caroren bukatu gabeko marrazkia

borako Itzeako bakardadean, liburua eta Donostian bizi zen Julio Urkijori egindako bisitaldiak izan ziren Caro Barojaren leungarri eta kontsolamendu bakarrak.

## IKASKETAK ETA IDAZLANAK

Juliok Madrileko unibertsitatean Antzinako Historia ikasi zuen, eta hamar urtez (1944-1954) Madrileko *Museo del Pueblo Español*eko zuzendari izan zen. Antropologo, etnologo eta historiagilea ez ezik, hizkuntzalari bikaina ere bagenuen. 1941ean, 27 urte zituela, argitaratu zuen lehen liburua, *Algunos mitos españoles*,



*Algunos mitos españoles*, 1941. Lehen argitalpena



Sarritan argitaratutako *Los vascos* liburuaren lehen edizioa, 1949



Giza Zientziei dagokien *Príncipe de Asturias* saria jasotzen, 1983

eta ondoren ikerketa ugari eta zehatzak burutu zituen, oinarrizko agirietan arakatzuz, edota herriz herri ibilita lanak finkatuz. Hauek dira batzuk, beste asko eta askoren artean: *Los pueblos del norte de la Península Ibérica* (1943); *La vida rural en Vera de Bidasoa* (1944); *Los vascos* (1949); *Vasconiana* (1957); *Las brujas y su mundo* (1961); *Los judíos en la España moderna y contemporánea* (1962); *La hora navarra del siglo XVIII* (1969); *Inquisición, brujería y criptojudasismo* (1970), eta abar luze bat. Julioren ikerlanak ikuspuntu askotatik begiratuta sortzen dira, diziplina desberdinez hornituta, gizartearen konplexutasunari erantzunda.



Zein arlotan kokatzen da Caro Barojaren lana? Zein maisu izan zituen? Batez ere, Ingalaterrako gizarte-antropologiari jarraitu zion, bereziki B. Malinowskiren lan ereduari eta eraginari esker. Antropologia mota honen behatoki bezala, 1972an idatzitako *Los Baroja. Memorias familiares* lan zoragarria moldatu zuen. Bertan, bere sendiaren ingurua ikertu eta islatzen du, sasoi konplexu bateko ispilu bezala hartuz. 1983an Giza Zientzia eta Komunikazioko *Príncipe de Asturias* saria lortu zuen, eta 1985ean *Premio Nacional de las Letras Españolas* izenekoa. Ondoren, *Real Academia de la Lengua Española* erakundeko kide egin zuten; aurretik Historiakoa ere bazen. Hemengo Euskal Akademiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen.



# Euskarari egindako ekarpen garrantzitsuak

Julio Caro 1934 aldera egindako marrazkia. J. B. Elizanburu idazlearen «Iragan besta biharamunean» bertso ezagunetan aipatzen diren lau atso jokalariei buruzkoa da

## EUSKARA IKERGAI

Beste hainbat arlotan ikerlari zorrotz eta maisu eredugarri gisa nabarmendu zen arren, ez ziren kamutsak izan Julio Caro Barojak euskal linguistikaren esparruan egindako ahaleginak. Oso gaztea zen euskal kulturaren tinkoak ziruditen teoriak zalantzan jartzeari ekin zionean. Horren adibide, «Leloren kantua» poemaren inguruan egindako kritikak. XVI. mendeko bertso hauek kantabriarren kanta zahartzat hartzea, Julioren ustez, XIX.eko erromanizismoaren eraginak bultzatutako teoria da. Jatorrizkoa sarrerako bertsoa izan daiteke, baina ondorengoak beranduago asmatutakoak dira. Hala ere, hasierako hitz

berak ere eztabaidagarriak agertzen zaizkio. «Canto de Lelo» horren kronologia, beraz, Julioren ustez, ez da fidagarria, eta bere jatorria euskarazko literaturaren sorrerara artifizialki atzeratu zen. Dena dela, garbi dago Caro Barojaren asmo eta interesen barruan, hasieratik, euskara zegoela. Adituengana ere jotzen du auzi honetan, eta Julio Urkijorekin bat dator: testu fidagarriago bat aurkitu ezean, asmatutzakotzat jo beharko litzaketela poema hau. Caro dionez, hizkuntzalaritzaren esparruan bere garaiko aurrerapenak kontuan hartuz gero, faltsifikazio horiek ezinezkoak dira, baina ulertzekoa da XIX. mendean era horretan onartuak izatea.

## EUSKARA ETA BESTE HIZKUNTZA BATZUEKIN HARREMANA

1942 eta 1943 urteetan euskarak inguruko hizkuntzekin izan ditzakeen harremanak ikasteari ekiten dio. «Observaciones sobre la hipótesis del vascoiberismo considerada desde el punto de vista histórico» lanean (1942), euskara Iberiako antzinako hizkuntza «iberikoetatik» gelditzen den bakarra ote den aztertzen du. Horretarako Esteban Garibai (1525-1599) hartzen du abiapuntutzat, Espainiako lehen hizkuntza izan zela defendatzen baitu historialari arrasatearrak. Denboran atzera jotzean garbi ikusten da, Caroren ikerketetan, hizkuntzak historiarekin zerikusi estua daukala. Hizkuntza gauza bizia da, eta beraren bilakaera eta aldaketak iraganean bilatu behar dira. Oso kontuan hartzen ditu, ikusiko dugunez, aspaldiko historiagileek euskararekiko izan duten iritzia, eta ikuspuntu horretatik ondorio hau ateratzen du: hizkuntza dinamikoa izanik, egoera desberdinetara moldatzen dela, eta desberdintasun horien zentzua historian bilatu behar dela.

Historia da, beraz, hizkuntzen bilakaera ikertzeko bidea. Juliok aipatzen duenez, M. Larramendiren (1690-1766) iritziz, Adan



Julio Caro Baroja Euskalerrriaren Adiskideen elkarteko kide batzuekin, Radio San Sebastián irratian 1949an hitzaldia eman ondoren. Besteren artean Pio Caro Baroja, José Ortega y Gasset, Miguel Pérez Ferrero eta Bergaretxe doktorea agertzen dira

eta Ebaren hizkuntza euskara izan zen, eta bere Hiztegia latin hizkuntzak ere euskararik hartutako hitzak dituela frogatu nahi du. Beraz, aspaldian ez zegoen euskara besterik Iberian. Beste batzuek ere Estrabon greziarra ekartzen dute auzi honetara, lusitaniarrek, galaikoeak eta euskaldunek hizkuntza bera erabiltzen zutela defendatuz.

Aldiz, beste batzuen ustez, Iberian hizkuntza desberdinak egiten ziren. Carok, nahaste-borraste honetan, metodo historikoa aldarrikatzen du Erromaren presentziaren aurretiko errealitate linguistikoa aztertzeko. Horretarako, adibidez, «iberismoaren» beraren balioa zalantzan jartzen du, arraza ibe-



rikoa asmakizun bat dela esanez. Greziatik hasi eta Irlandaraino arraza mediterranea zela defendatzen du. Erromatarrak iristean, berriz, Iberiako ipar alde oso kultura maila apalekoa zen, eta Hegoaldea landuxeagoa. Beraz, egoera desberdinekoak. Jatorriz Iberia Hegoaldekoa zen Pompeio Melak dioenez, kantauriarrek eta barduliarrek hizkuntza ulertezina erabiltzen zuten, beraz «vascoiberismo» delakoa asmakizuna da. Seneka berari kasu eginaz, Iberiako Ipar-mendebalean hizkuntza berezi bat erabiltzen zen, eta Estrabonen esanetan, hauek antz handiagoa dute akitaniarrekin iberiarrekin baino. Non dago, orduan, galdetzen du Caro Barojak, delako «vascoiberismo» hori, iparraldean bertan ere hizkuntza bakar bat ez baldin badago?

Hori dela eta, ondorio hauetara iristen da: euskara penintsula guztian zabaldua egon baldin bazen, hori Kristo aurreko 800 edo 1000 urtetara atzeratu behar da. Garai hori kontuan hartuta, gainera, bakarrik Pirineo inguruan azaltzen dira euskararekin zeharrikusua izan ditzaketan aztarna linguistiko batzuk.

Caroren ikerketa horien ondoren, Antonio Tovar hizkuntzalari famatuak esan zuen Caro Baroja izan zela «vascoiberismo»aren inguruan ordura arteko azken hitza eman



Donostiako Txertxo argitaletxeak kaleratutako Julio Caroren «Estudios Vascos» sortaren lehen liburukia, 1973

zuen. Kontuan izan behar da, urte haietan ez zela artean hemen ezagutzen Gerhard Bähr-ek Bigarren Mundu-gerra garaian Göttingen-eko unibertsitatean aurkeztu zuen *Baskisch und Iberisch* deituriko tesia, arlo horretan egindako lanik sakonena.

Aldi hartan, latinarekin eta hizkuntza erromantzeekin dauzkan harremanetan oinarriturik, euskarak historian zehar egin zuen atzerakada ikertzen du Juliok, baina



## Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina


*Materiales para una historia de la lengua vasca, 1945-1946, Julio Caro euskararen inguruan egindako ikerketarik garrantzitsuenetakoa*

era berean beste garai batzuetan hizkuntza honek izan zuen hedadura eta presentziari ere erreparatuz. Latinak eta euskarak izan zituzten harremanetarako *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina* (1945-1946) Caroren obra goiztiarra gaur egun ere funtsezko lana dugu arlo horretan.

Caro Barojak bere buruari galdetzen dio ea nola den posible, erromanizazioa gertatu ondoren, euskara bezalako hizkuntza fosil bat mantentzea; baita erromatarrekin harreman estua izan zuten lurraldeetan ere. Nola ulertzen da uharte isolatua bilakatzen den hizkuntza honek mintzaira erromanikoen artean bizirik jarraitzea? Hemen sartzen da jokoan, Caroren iritziz, hizkuntzen dinamika berezia: inguruko eraginei zabalik egon, maileguak onartu, eta hala ere bere horretan bizirik iraun; toponimian, latinezko atzizkietan, beste hainbat hitz euskarari txertatuz, baina jatorrizko

berbete mantenduz. Europako hizkuntza nagusiek beste hizkuntza xumeagoetan eragina izan dute, eta zer esanik ez euskarari. Ezin dezakegu pentsa, dio Juliok, euskarak inguruko hizkuntzekin harremanik izan ez duenik.

Onomatopeiak agertzen dituzten hitzak, berriz, ingurura moldatzen direla uste du Caro, eta garbi erakusten dute euskara, antzinako sustraiak eduki arren, ez dela inoiz fosilizatua bizi izan, aldaketei eta era berriei irekia baizik.



Julio Caro Baroja

## EUSKARA BERE INGURUNEAN

Caro Barojak, euskaldunen arraza azterterakoan, hauen hizkuntzaren oparotasuna eta ingurunearekin daukan harremana miresten du. Horren adierazgarri nabaria senitarteko harremanen deitura aberatsek islatzen dute. Etxeari dagokionean, adibidez, atzizki bidez ikusten da jabe goaren eta hizkuntzaren arteko lotura: *egia, enea, baita* formak ugari agertzen dira; euskara galdu den eskualdeetan ere azaltzen zaizkigu oraindik aspaldiko erabilerari lotutako hitzak. Esaterako, egun ere Arabako Kuartango aldean *borda* hitz arrunta da, euskara desagertua izan arren.

Sendi barruko harreman eta loturei begiratu gero, izugarritzko aberastasuna nabaritzen da, eta erlazio hauek zerrenda luzea osatzen dute. Bitxikeria handia da, halaber, emakumeari ala gizakumeari berba egitean, ideia bera adierazteko, aditz-laguntzaile desberdinak baliatzea: *egin duk* gizonezkoari, *egin dun* emakumezkoari, eta abar.

Euskal etnografiara azaletik hurbildu diren ikerlari kanpotar askok honelakoak baieztatu izan dituzte: euskaldunak tradizioetik ez direla aldendu, ez direla modernizatu, ez direla inguruko gizartearen dinamikan sartu. Horretarako, artzaintzaren



Berako *Jorraidantza*. Julio Caro Barojaren marrazkia

munduko historiaurreko bizimodua jartzten dute adibidetzat: eredu horren arabera, orain direla milaka urte bezala bizi dira euskaldunak, hizkuntza eta kultura fosilizatu bati atxikita. Ez dute, ordea, aintzat hartzen honako hau: artzaintza oraintsura arte tradizio zaharrek lotuta egon baldin bada ere, beste arlo gehienetan aspalditik egokitzapenak direla nabari, langintza horietako zereginak baldintza berri eta desberdinetara bideratuz. Meatzaritza, burdingintza, ikazkintza, arrantza, edo eta itsasontzigintzari so eginda, nabarmen ikusten da derrigorrezko aldaketetara moldatu behar izan direla euskaldunak, bai teknikari, eta ondorioz, hizkuntzari dagokionetan. Adibide hauek garbi adierazten dute, Julio Caroren ustez, euskara eta bere kultura ez direla zaharkituta geratu.



Donamariako (Nafarroa) dorretxea.  
Julio Caroren marrazkia, 1982 inguruan

## KRISTAUTASUNA ETA SINESKERIAK

Euskal mundu mitikoa hizkuntzan islatzen da. Izen handia izan dute Basajaunek, Tarttalok edo lamiek, natura pertsonaia misteriosuz beteta dago, eurek animatzen dute izadia, eta harreman hori folklorea eta hizkuntzan garbi azaltzen da. Egutegiak berak ere badu zerikusia folkloreakin eta sineskeriekin: ortzeguna, adibidez, ortzi edo zeruaren eguna da, eta hilabeteak, berriz, nekazarien eginkizunen arabera

izendatzen dira: uztailak, esate baterako, uzta jasotzeko garaia dela gogorarazten digu. Eta naturarekiko errespetuaren adierazgarri bezala, Ataungo ohitura bat aipatzen da: otsoa baretu edo kalterik egin ez dezan, *otsabilkoa* batzen da, piztiari zor zaion zerga edo saria.

Dena den, euskal folkloreak argi eta garbi erakusten du Europako folkloreak antz handia duela maiz: bateko eta besteko ipuinek oinarri berdinak dauzkate askotan; euskal dantza, kanta eta bertso batzuen jatorria hemendik kanpora bilatu behar da; hemengo zenbait tresna, jantzi eta lan-ohiturak kidetasun aipagarriak dituzte Europako beste herrialde batzuetakoekin. Carorentzat, bada, ez dago folklore desberdinen artean sarritan aldarrikatu izan den ustezko isolamendurik.



Euskal baserriko lanak eta ustiaketa.  
Julio Caroren eskema, 1946

Lehengo euskaldunek naturarekin izan duten lotura adierazteko, Juliok aipamen bat jasotzen du: XIX. mendean jaiotako gizon zahar bat ezagutu omen zuen Beran. Oso xelebretzat zuten herrian, eta aparte samarreko baserri batean bizi zen. Agure horren hizketa-modua oso bitxia omen zen. Uste zuten animalia batzuek hegan egiten zutela, eta dena zen misteriotsua bizi zuen munduan. Caro Barojaren iritziz, Erdi Aroko ideien kutsua zerion beratar honi, bai portieran, bai pentsamoldean.

Naturarekin harreman estu hori are eta nabarmenago frogatu dezakegu beste ohi-tura honetan: etxeko nagusia hildakoan, erlauntzara hurbildu eta erleei hitz egiten zitzaien: «Erletxuak, erletxuak, egizue argizaria. Nagusia hil da ta behar du eleizan argia». Naturarekiko loturek aspaldiko ohi-turei atxikita iraun dute mendez mende, ia gaur egunera arte. Sanadore, sasi-mediku eta sendatzaileak hor dira, zeinek alde batetik produktu naturalekin osatzen zuten, baina baita ere errezu eta esaldi misteriotsuekin.

Caro Barojaren ildotik, kristautasuna eta sineskeria batera agertzen diren mundu berezi batean sartzen gara. Olentzeroren presentzia bera nahiko deigarria da: ikazkinen giro basatian bizi arren, erlijio-



Iturengo Zanpantzarra. Julio Caroren marrazkia, 1967



tik aldenduta, urtero Kristoren jaiotza aldarrikatzera jaisten da menditik, sines-teen bi munduak elkartuz. Antzeko lotura nahasia nabaritzen da ekaitzak eta harria uxatzeko udalek apaizari ordaintzen diotena kontuan hartuta: apaiza bera makurtzen da aspaldiko jentilen tradiziotara.


Sorginkeriarekin gisa horretako zerbait gertatzen da: sorginengandik babesteko, kuttunak, gero eskapularioak, erabiltzen dira. Julio Caro bere buruari galdera hau egiten dio, euskaldunen balizko isolamendua ezeztatzeko: ba al dago sorgin-mundua baino kutsu europar gehiago duenik? Horretan ere, ez bereziak, ez isolatuak, baizik europarrak agertzen direla euskaldunak diosku Berako maisuak.

## ERESI, BERTSO ETA ELEGIAK

Euskal literaturaren alor aberats hau hizkuntza eder batez jantzia dator. Gizarte eta hizkuntzaren arteko lotura estuago gauzatzen da herri-literatura mailan, Julio Caroren ustez. Bertso-mundua asko gustatzen zitzaion eta, berak zioenez, kanpotarrek (bera bertakoa sentitzen zen) bertso-gintzari mundu arraro, herrikoiegi eta kalitate gutxikoa irizten zioten. Itzeako jakintsua, ordea, mundu arraro horrekin

identifikatzen zen. Ez zuen alferrik aitona Serafin bertsogilea izan.

Euskaldunoi Erdi Arotik heldu zaigu hainbat kanta zahar, sarritan emakume koblakalarien bidez gainera. Hauen parte-hartzea momentu zailenetan, saminarean aurrean, dolu eta atsekabeetan emandako



Caro Barojak 1972an kaleratutako liburu honetan euskarazko kanta zaharrei buruzko hainbat albiste datoz



erantzun bezala agertzen da. XII. eta XV. bitarteko mendeetan gogorkeria asko gertatu zen leinu desberdinetako ahaideen artean, eta erasoen ondoren mendeku bel-durgarriak etortzen ziren. Adibide bezala, hor ditugu Zuberoako *Haltzak ez du bihotzik*, edo Gipuzkoako *Alos torrea* kantetan jaso eta ahozko tradizioz gaur egunera arte iritsi zaizkigun pasadizo lazgarriak. Carok, beste euskal testu batzuen artean, Arrasateko Santxa Otxoako andreak XV. mendean, senarra erail ziotenean, kantatutako eresi hunkigarria ekartzen digu gogora:

*Oñetako lur au jabilt ikara  
lau aragiok berean berala  
Martin Bañez Ibarretan il dala  
artuko dot esku batean gezia  
bestean zuzi iraxegia  
erreko dot Aramaio guztia.*

Bertsogintza jori honek doluak ez ezik, amodioa, egoera barregarriak, adarra jotzekoak edota gertatutako ekintzak ere jakinarazten dizkigu. Berriz ere, Julioaren ustez, errealitatea eta hizkuntza dinamikoak bilakatzen dira. Hizkuntza errealitateari begiratzeko modu bat eta berau interpretatzeko baliabide paregabea delako.



Caro Barojak Erronkarin egindako marrazkia



# Euskal munduaz maitemindua eta kezkatua

Jose Migel Barandiaran eta Julio Caro 1983an

## BESTE HAINBAT IKERKETA LINGUISTIKAREKIN LOTUTA

Dialektologiaren esparruan ere hainbat ikerketa egin zuen Caro Barojak, metodo bezala hizkuntzaren bilakaera eta historia protagonistatzat hartuz. Gai honek euskarak inguruko hizkuntza eta herriekin izandako harremanak aztertzeke aukera ematen dio. Latinezko hitzak ere maiz hartzen ditu euskarak, hala nola beste hizkuntza batzuetatik. Horrek zer esan nahi du? Julioren ustez, euskal kulturak eta hizkuntzak erromanizazioaren eragina izan dutela. Euskaldunek lurrez nahiz itsasoz makina bat leku eta industria-aurrerapen zein teknika berri ezagutu, eta kristau sinismenaren eragina ere onartu ondoren, nola defenda daiteke euskara fosilizatua,

aldatzeke eta isolatua egon dela? Euskarak idatzitako literatura urria izateak ez du esan nahi hizkuntza atzeratua edo baliabidegabea izan denik.

Bestalde, Carok hau ere baieztatzen du: euskal linguistika bete-betean eta sendo aurrera doala, eta hori lortzeko, irakasle eta hizkuntzalari famatuek lagundu dutela ikerketak bide onetik eramaten. Juliok ez dauka bere burua linguistatzat, eta miresten ditu jatorriz euskara menderatzen duten ikerlariak. J. M. Barandiaranek eta R. M. Azkuek, bere esanetan, izugarrizko abantaila zeukaten: alde batetik, hizkuntzaren jabe ziren txikitatik, eta bestetik, apaizak izanik, lekukoek errazago irekitzen zien euren barne-mundu ezkutua.

Hark zioenez, bi jakintsu handi hauek, bere folklore-ikerketekin, ondo sustraituta zeuden mito faltsuak desegin zituzten, eta beste ondorio garrantzitsu bat atera zuten: euskal folklorea erabat europarra zela, Espainia estatuko hainbat sasijakintsuren iritzien aurka. Burdinazko eta zurezko tresneriak, oihalek eta dolareek Europaren parean jarzen dute, ez Mediterraneoari begira.

Caro Barojaren erronka ezagunenetako bat Esteban Garibai historialari arrasatearra hainbat mendez baztertutako zulo ilunetik ateratzea izan zen. Ez zituen onartzen Garibaik, hil ondoren, jaso zituen kritika gupidagabe eta mendeku itxuragabeak. Horregatik borrokatu zuen hainbeste haren izen ona berreskuratzen eta garbitzen. Zentzu kritikorik gabeko idazlea zenaren ideia faltsua desegiten. Historia-arloetan hori erabat lortu zuen, eta euskararen inguruan Garibaik idatzitako lanak ere goraiatu zituen. Batez ere, arrasatearrak euskaltzale eta folklorista bezala jokatu zuela garbi utzi nahi izan zuen. XVI. mendean Garibaik euskarari buruz bildutako lekukotasunak oso baliogarriztat jotzen ditu, batez ere kanta zaharrak. Gaztedenboran Garibaik Juan Oñate deituriko abadea ezagutu zuen, eta hari entzun omen zizkion erosta edo eresi zahar batzuk. Adibidez, oso gazterik ezbeharrez hil zen Debako

Milia Lasturko andrearena, Arrasateko Pero Garzia Orokorekin ezkondua zena. Milia emazte gaztea zendu eta berehala, senar alarguna antzinako andregaiaren atzetik joan zelarik, hilberriaren ahizpak honela abestu zuen:

*Zer ete da andra erdiaren zauria?  
sagar errea eta ardao gorria.  
Alabaia, kontrario da Milia,  
azpian lur otza, gañean arria.*

Garibaik azaltzen digunez, horrelako eresiak asmatzea emakumeen zeregina zen, eta haiei zegokien sendien arteko borroka dialektiko-poetikoak jarraitzea. Estebanen amonak ere dohain profetikoa omen zeukan.



Indalezio  
Bizkarrondo  
*Bilintx*

Bestalde, Indalezio Bizkarrondo *Bilintx* (1831-1876) bertsolaria ere kontuan hartu zuen Juliok. Serafin aitona Bilintxen adiskide mina izan zen, eta bere bertsoen zabalzailea ere bai. Carok esaten duenez, bere amonari ere entzun omen zizkion XIX.eko gerrate garratzetan sortutako bertsoak.

Era berean, euskarak agiri juridikoetan utzitako aztarna zaharrak azpimarratzen ere saiatu zen Caro: Jakes Bela zuberotarren edota Nafarroako Foru Legediaren testuetan, besteak beste.

## CARO BAROJA, EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA

Zenbateraino maite izan zuen Caro Barojak euskara eta euskal kultura? Orain arte esandakoarekin garbi gelditu da Euskal Herria, bere historia, kultura eta izaera noraino mirestu eta estimatu izan zuen Baroja sendiak, eta bereziki Julio Carok.

Egin dezagun bisita bat bere santutegira, Berako Itzeara. Nekez jakin daiteke, kuriositateak edo jakin-nahiak bultzatuta, nolako jendetza hurbildu izan den, urteetan zehar, etxetzar horretara. Gutxi geldituko ziren kanpoan, Julio bertan baldin



Berako Itzea etxearen aurrean 1972an, Dámaso Alonso, Espainiako Hizkuntza Akademiako presidentearekin eta herritar batzuekin, Pio Barojaren jaiotzaren mendeurrenean

bazegoen behintzat. Jakina da handikeriaz hurreratutako pertsonaia batzuk nola uxatu zituen, haien jokabidearekin ados ez zegoelako.





Berako udaletxean 1980an egin zitzaion omenaldian, Josu Goia alkateordearen eta Manuel Iriarte alkatearen artean

Nire kasua aurkezten badut, beste hainbestek ere nik jaso nuen harrera ona eta abegitsua izan zutela ziurtarazteko besterik ez da. Historia kontuetan oraindik berria nintzen, Lesakan bizi nintzenean, eta Berako adiskide batekin joan nintzaion aholku bila. Baita eman ere, ez behin, urte askoan baizik. Adierazgarria da irakurtzeko gomendatu zigun liburua Malinowskirena izan zela, berak maisutzat hartutako antropologoarena. Kontuan hartzekoa da lan horietan hasi berriak ginenon ikerketa xumeak, Berako Agiritegitik ateratakoak, onartu, zuzendu eta argitaratzeko bideratu zituela. Hori 1970eko hamarkadaren has-tapenean zen, eta handik urte batzuetara doktoradutzako tesia ea zuzenduko zidan

galdetzean, baiezko borobil eta lasaigarriaz erantzun zuen.

Denbora asko ematen zuen on Juliok zeregin horretan laguntzen, eta, probak bidali ondoren, zuzenketa egin eta hainbat aholku eta gomendio ematen zizkidala aitortu behar dut. Bestalde, jakinduria-santutegi hartara bisitari gisa eramaten nituen lagunak nolako arretaz hartzen zituen, bera hain ospetsua izanda, oraindik ere harritu egiten nau. Euskal kultura maite eta Itzeara gerturatu izan direnak esker ona adierazteko prest daudela esango nuke.

Horretaz gain, Barojatarrak beratarrekin izandako hurbiltasun ezaren ideia herri-tarrek eurek zapuzten dute. Maiz molda-



tzen zituen Juliok, Berako pertsona jakitun nahiz arruntekin, inguruetako parajeak eta eskualdeak ezagutzeko txangoak. Bisita aberatsak: berak eramaten zituen mapa eta bestelako materialak Zugarramurdi, Otxagabia, Pabe edo Erriberako hainbat herri ikustera joaten zirenean. Bisita horien dokumentu grafikoak ugariak dira, eta parte hartzaileen oroitzapenak ezin ahazteko modukoak. Ez zituen bakarrik euskal kultura eta historia maite: hortaz zekiena, interesa zeukaten herritarrei irakasteko beti gertu agertzen zen.


Eta zer esan euskararekiko? Julioentzat hizkuntza komunikaziorako behar-beharrezko tresna baliagarria besterik ez zen. «Gizaseme bezala, hizkuntzetarako trakte-tsa naiz», aitortzen zuen, edo eta «saies-tuezinezko gaitza bezalakoa da hizkuntza». Hala ere, hizkuntzetarako erraztasun eta jakin-nahia aseezina zeukan. Hizkuntza klasikoez gain, frantsesez, ingelesez, ita-lieraz eta alemanez ongi moldatzen zen. Sahara lurraldera bidaia egin zuenean, hartarako prestatu ondoren, bat-batean bertakoen arteko elkarrizketa baten arabieraz parte hartzeko gai ikusi zuen bere burua, afrikarren harridurarako.

Euskara mailan, herritar xeheekin harremanetan jartzeko J. M. Barandiaranek zeu-



Berako adiskideekin 1985ean Zugarramurdira egindako txangoan

kan samurtasuna gogoko zuen. Edonola ere, hizkuntzalaritza arloan osatu zituen hainbat ikerketa osatu ahal izateko, derri-gorrez menderatu behar zuen Juliok euskara, teoria-mailan bederen. Lantxo hone-tan garbi gelditzen da irakurtzeko zeukan trebezia, edota esandakoa ulertzeko. Beste gauza bat da hitz egiteko jariorasunik zuen ala ez. Gutxik esango lukete Caro Baroja euskaraz elkarrizketa bat mantentzeko gai zenik. Adierazgarria suerta daiteke, hala ere, osaba Pio hil zen egunean, Juliok Mexikora bere anaiari bidalitako telegrama: «gaur il da». Uste den baino ohitura gehiago al zeukaten anaien artean euskaraz komunikatzeko?



Julio eta Pio Caro Baroja anaiak Itzeako egongelako tximiniaren ondoan, 1980 inguruan

Hori argitzeko beratar euskaldun batzuekin egon nintzen, eta hona hemen atera nituen ondorioak: 97 urte zituen Juana Irazoki bisitatu nuen, eta zuzenean horretaz galdetu nion. Esan zidanez, «gurekin, *kaxerekin*, euskaraz egiten zuen». Dornaku auzoko Balkezenea baserrira hurbildu nintzen, bertakoa baitzen Julio-ren lagun handia izan zen Antonio Irazoki

gizon ilustratua, Juanaren anaia. Baserri hartan maiz egoten zen Caro Baroja, bere ikasketak sakontzen. Hango Rufina Endara, Juana eta Antonioren iloba, honela mintzatu zitzaigun: «Hasteko, baserritarrei galderak gaztelaniaz egiten zizkien. Hala ere, galderak ulertzeko arazorik ikusten bazuen, orduan euskarara jotzen zuen, eta bere horretan jarraitu ikerketa». Garbi dago Juliok hasieran gaztelaniaz galdetzen zuela, baina ez zeukala euskara tresna bezala erabiltzeko zailtasunik, bere asmoekin aurrera jarraitu ahal izateko.

Uste dut aitortza hauek mito bat puskatzen dutela. Ulertzekoa, Julioren hizkuntzetarako erraztasuna kontuan hartuta, euskara ere baliatzen zuela. Izan ere, bere haurtzaroko adiskideen hizkuntza bakarra euskara baitzen. Itzean entzundako euskaldunen ipuin eta kantak barru-barruan gelditu zitzaizkion. Aitona Serafinek euskaraz egiten zuen. Amak ere bai. Osabek ez hainbeste, eta Juliok... bere ikerlanetarako baliabide aparta bezala ikasi zuen. Maite zuen euskara, batez ere kultura baten ispilua zelako. Bere burua, Euskal Herritik kanpo, euskalduntzat zeukan, eta txapela Afrikako basamortuan ere buru gainean zeraman, bere euskalduntasunaren ezau-garri bezala.





Julio Caro Baroja.  
Autorretratu, 1975

Egileak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko eskaini duten informazio eta laguntzagaririk, eskerrak eman nahi dizkiete:

- Pio Caro Barojari
- Josu Goiari

---

Zuzendaritza: Jerardo Elortza  
Argitaraldia: 1.a, 2013ko abenduan  
Ale-kopurua: 2.300  
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz  
Argazkilaria: Edorta Sanz  
Fotokonposizioa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz  
Inprimaketa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz  
ISBN: 978-84-457-3320-2 (Lan osoarena)  
978-84-457-3322-6  
L.G.: VI 856/2013



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA